



Data: 2023-07-21

OPOSIZIO-FASEA

Informazio eta orientazio ondorioetarako soilik, izangaiei jakinarazten zaizkie Haur Hezkuntzaren, Batxilergoaren eta Oinarrizko Hezkuntzaren (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren) curriculumak EAE-n ezartzen dituzten maiatzaren 30eko 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 dekretuetan (EHAA: 2023/06/09), hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera Hezkuntza Sailak garaturiko PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK eta IKAS-EGOERAK egiteko gida eta txantiloiak.

Era berean, eta informazio-, orientazio- eta gardentasun-helburu berarekin, hautaketa-organoek oinarrizko erreferentzia komun gisa erabiliko dituzten ebaluazio- eta kalifikazio-tresnak ezagutarazten dira, betiere deialdi-aginduan bertan ezarritako baldintzei eta irizpideei helduz (V. eta VI. eranskinak).

Hauei dagokienez, gogorarazi beharra dago, hala ere, Hautaketa-Batzordeei zein Epaimahaiei badagokiela legez (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Agindua, 2022/12/28ko EHAA), eta kasuz kasu, beharrezko xehetasunak eta egokitzapenak egitea eta onartzea, batez ere, zozketaren ondoriozko azterketa- gaien eta hautaketa-organo horiek irakasle-kidego eta espezialitate bakoitzerako proposaturiko proba praktiko zehatzaren edukiaren eta ezaugarrien arabera, bai eta atal nahiz azpiatal bakoitzari emango zaion puntuazioa zehaztea ere.

Era berean, nabarmentzen da erabili beharreko kontzeptuak eta terminologia kasu konkretu bakoitzean indarrean dauden erreferentziazko curriculumaren lege-marko ezberdinen arabera ulertu eta egokitu behar direla kidego zein espezialitate bakoitzean (curriculum-dekretu berriak ala aurrekoak).